

Amenduxen olerkiaz.

Oharrak

PATXI SALABERRI ZARATIEGI *

Ikertzaile bat baino gehiago arduratu da gaurdaino Iruñeko euskararen lekukotasun zaharrena bide den olerki labur honetaz. Interpretazioak ez datoz bat, eta gure oraingo hau egin direnak gehitzera eta ahal bada, neurri txiki batean bederen, hobetzera dator. Hasteko grafiaz ohar batzuk egin nahi ditugu, hemen baita gure iritzian interpretazio diferente anitzen iturrama:

Dardarkariak: r-ren bidez, bokal arteko lekunean, bakarrik dardarkari bakuna ematen du aditzera olerkari iruindarrak; R-rekin aldiz batzuetan dardarkari bakuna irudikatzen du, baina beste batzuetan dardarkari anitza dugu grafema horren pean ¹: *orçiric* / *orçiriq* (1), *eRiciric* (1-2), *Erioac* (2), *doloros-qui* (2), *egociRiq* (2), *belDuRiqui* (3), *partituristic* (3-4), *peril* (5), *pasaturic* (5), *ydequiric* (6), *plazerac* (7), *biurturic* (7), *çaRayz quiDate* (14), *ElcaRequi* (15).

Hala ere, dardarkari anitza adierazteko behin edo beste rr ere edireten dugu, R-ren ordeaz: *horrac* (6), *arrece* (9). Kontsonante aitzinean r dugu, [r̄] balioarekin: *orçiric* / *orçiriq* (1), *partituristic* (3-4), *bertan* (6), *biurturic* (7), *artes* (8)...

Txistukariak: sail honetan betiko arazoez gainera -hots, euskararen soi-nuak bestelakoak dituen hizkuntza baten, erdararen, ortografiarekin emateaz gainera- Nafarroako garai honetako agirietan ugariak ez diren hortz-hobieta-ko / bizkarkari nahasketa nahikoa azaltzen da, eta gaztelaniaz idatzitakoan ere maiz aurkitzen dugu, arrazoia sobera garbi ez dagoela, zeren Nafarroan -baita hegoaldeko goi-nafarrera mintzatzen zen edo den alderdietan ere- lekune zehatz batzuez kanpo, bokal artean batez ere, [s] eta [ś] ez baitira nahasten, jakina den bezala.

* Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

1. Parentesi arteko zenbakiak lerroa adierazten dute. Lerroa eta bertsoa ez datoz beti bat, agertu ere hirugarren bertsoa bi lerrotan idatzia agertzen baitaigu.

Irigarayk Satrustegiri egin zion iruzkinean ² -egin zituen bietan laburrenean- lehen lerroko *naca* ‘natza’-ri zedila falta zaiola dio, baina gaztelaniaz idatzitako agiritan oso arrunta da, garai honetan eta aitzinago, euskararen [c] afrikaria *c* batekin irudikatzea, hau da, zedilarik ez duten formak ibiltzea, zediladun aldaeren aldamenean maiz. Nolanahi ere den, gure ustean Irigarayk ez zuen ongi irakurri, *c*-ren azpian, honen eta hurrengo *a*-ren artean, puntu bat behintzat ageri baita, zedila osoaren arradiza datekeena ³.

Aztergai dugun olerkian batzuetan zediladun forma azaltzen da, eta beste batzuetan ez: *orçiric* / *orçiriq* ‘ortzirik, ehortzirik’ (1), *EgociRiq* (2), *acenduric* (8), *yçoc* (14). Aldi berean, *c*-rekin [k] herskari belare ahoskabea ere ematen da aditzera, *qu*-rekin bezala: *Erioac* (2), *Jangoycoagana* (3), *pasaturic* (5), *belDuRiqui* (3), *azqueno* (7)... Zediladun aldaerak, bestalde, igurzkaria adierazten du frankotan dokumentazioan, eta hemen ere bai, inoiz edo behin: *duçuen* (13), *çaRayz quiDate* (14).

Hortz-hobietako igurzkaria emateko, beste milaka eta milaka agiritan bezala -beste anitz aldiz *ss* dugu eta batzuetan *ch-* *s* dugu *asecabe* (7) hitzean. Erran dugun moduan beste dokumentuetan arrunta ez dena, zenbaitetan opatzen badugu ere, *z* / *s* nahasketa da, edo hobeki erran, *z*-ren ordezt *s* azaltzea: *lusean* ‘luzean’ (5), *gusia* ‘guzia’ (9), *isanen* (12), *judision* (15), *gusiequi* (16).

Amenduxen nahasketa honen erroa agian idazmena behar bezain garatua ez izatean egonen da, Jimeno Juríok argitu duenez Tuteran hasi baitzen idazten ikasten eta Iruñean bukatu edo behintzat bukatzen saiatu, lanean aritzeko ezinbesteko zuen eta. Zernahi gisaz, kontuan hartu behar da Juanesen aita medikuak ere *z* / *s* nahasketa egiten duela, olerkia dagoen kuadernotxo berean idatzitako kontuetan (erraterako *Lisasoain* darabil, *Lisasoain*-en ordezt). Hau bitxia da Nafarroako euskaldun batengan, eta dokumentazioan behin edo beste azaltzen bada ere, gure irudiz garbi erran daiteke ez dagoela batere zabaldua, Nafarroan bederen, instrumentalean ez bada.

Beste batzuetan ere *z*-ren ordezt *s* dugu, baina oraingoan hortzetako herskariaren aitzinean da, edo hitz bukaeran, instrumentalaren ondarkian: *artes gutis* (8), *aldias* (11), *estu* (12), *estudan* (12), *garitates* (13). Hau, jakina den bezala, arrunta izan da eta da hegoaldeko goi-nafarreran, nahiz euskalki hau erabili duten idazle guztiek ez duten berdin jokatzeko ⁴. Beste testuinguru batzuetan, ordea, *z* + herskaria dugu: *noyzbait* (1), *azqueno* (7), *çaRayz quiDate* (14).

Olerkia zuzen interpretatzeko aipatu behar den beste kontu bat puntue-na da. Izan ere, oso ugariak dira puntu goratuak dei ditzakegunak, hots, zenbait letraren gainean opatzen ditugun puntu altuak. Hau normala litzateke i, j edo y edo *n*-ren gainean, azken kasu honetan soinu bustia adierazteko,

2. “Hallazgo de una elegía vasca del año 1964”, *BAP*, 19 (1963), 63-85. Irigarayren ohar laburra azken orrialdean heldu da. Bigarren ohar luzeagoa boletin berean atera zuen argitara, 217-219 orrialdeetan.

3. Honek, dena den, ez du inolako oztoporik paratzen olerkiaren interpretazio zuzenerako.

4. Juan de Beriainek eta Elkanoko Lizarragak eskuarki -zt- dute honelakoetan. Elizalde aldiz -st- du, eta Muzkiko testuetan bi soluzioak opatzen ditugu. Euskalki berean idatzitako beste testu batzuetan -zt- edo -st- dugu, normalean ez biak testu berean. Honetaz *ASJU*-n argitara ateratzeko dagoen “Nafarroako herri-izenen inguruan” lanean mintzo gara.

baina ez da aise ulertzen puntu horiek *c* edo *q*, *e*, *r*, *a* eta *u*-ren gainean azaltzea, hemen agitzen den bezala. Honek batzuetan *i* eta *e* puntuduna bereiztea galerazten du (cf., adibidez, *adisquideac* eta bereziki *arrece* eztabaidatua. *BelDuRiqui*-k ere zerikusirik baduke honekin, agian. Cf. honekin ikuskizun zuzena duen *ElcaRequi*, ondarraitzineko lerroan), eta kasu batean zalantza izan dezakegu, interpretazio baten (*azqueno*) edo bestearen (*azqueño*) alde, kasu honetan gerok *azkeno* irakurketa hobesten dugun arren.

Guk Jimeno Juríorekin batera orijinala ikusi ondoan honela irakurtzen dugu:

*Hemen naça orçiriq noyzbait Gozo⁵ ERici
ric erioac huste gabe⁶ dolorosqui EgociRiq
Ene anima Jangoycoagana⁷ belDuRiqui partituristic
lagungabe bide lusean⁸ peril asco pasaturic
honac eta horrac⁹ bertan muduac ydequiric
plazerac azqueno¹⁰ asecabe biurturic
haydeac Eta adisquideac¹¹ artes gutis acenduric
yuste(n)tul 12 ysuriRic¹³ arrece¹⁴ gusia des Eginic
argi gabe yllunbitan¹⁵ hustel Eta quirasturic
nigar begi bapederac bere aldias oRoyturic
niorcore¹⁶ isanen Estu ni estudan partiduric
Ene anima duçuen gomendatu garitates mobituric
çaRayz quiDate¹⁷ g¹⁸ bertan yçoc ongi notaturic
Josafate¹⁹ baturen gara judision ElcaRequi²⁰
bitarte²¹ lodagigun baquea dela gusiequi*

5. Gure iruindarrak ez bide zuen sobera ongi idazten, olerkian zehar aurkitzen ditugun zuzenketa ugariak lekuko; adibidez, *Gozo Ericiric*-en *Goço* idatzi zuen aurrena, eta gero *z* paratu zuen *ç*-ren gainean. Kasu berean daude lehenik *-c-z* eta gero *-q-z* idatzi zituen *orçiric* / *orçiriq* eta *ysuriRic* / *ysuriRiq* (baina *EgociRiq*). Testuan badira beste zuzenketa batzuk ere: *orçiriq*-en *n* bat sartu du (*orçiring*), *huste gabe*-n *h* letra aurreko *v* baten gainean dago idatzia, *dolorosqui*-n hirugarren *o* hori itxi gabe zegoen hasiera batean (*doloresqui* bide genuen), *Jangoicoagana* hitzeko aurreneko letra *d* zen lehenbizi eta *biurturic* *biurtiric*. Azken lerroko *gusiequi*-ren aitzinean ere bada zirriborroto bat, baina ez dirudi horrek irakurtze egokiari deus kentzen dionik.

6. Ez dago zeharo argi bi hitzok batera emanak dauden edo bereiz; tarteko bat dugula erran daiteke. Bi hitzon azken *e* horiek puntu bana dute gainean.

7. Hemen Jāgoycoaganā...a irakurtzen da.

8. Hemen lusea...n irakurtzen da.

9. Hemen horrac dugu.

10. Erran bezala *n*-ren gainean puntua ageri da.

11. Erran dugun moduan, *e*-k puntua du gainean.

12. Parentesi artean paratu dugun *n* hori ez da batere argia, baina gure ustez letra horren lehen makila ongi irakur daiteke, bigarrena falta bada ere. Jimeno Juríok, ordea, ez du guk bezain garbi ikusten. Laguntzailearen bokala *o* nahiz *u* izan daiteke; edozein modutan gaineko aldetik itxi gabe dago. Ondarreko horzkariari, azkenik, txapela falta zaio.

13. Hemen berriz ere *-c* eta *-q* ditugu lehena bigarrenaren gainean.

14. Bukaerako *e* horrek puntua du gainean, eta hori dela-eta *arreci* ere irakurri dute. Dena den, gure iritzian *e* dugu hor.

15. Hitz honetako *-i-* ordea oso argia da; ez dugu uste *e* puntuduntzat har daitekeen.

16. Hemen berriz ere zalantzan gaude *o* edo *u* ote dugun, goitik itxi gabe baitago. Nolanahi ere, garbi dago ez dugula, orain arteko aztertzaileek erran dutenaren kontra, *e* bat.

17. *çaRayz quiDate* ere irakur daiteke.

18. Hitz hau orijinala ikusirik ere irakurgaitz egiten zaigu, eta nahiago dugu hipotesirik ez mahai-gaineratu.

19. Horzkariaren ondoan *e* dagoela irudi du, baina bakarrik burua ageri da garbiro; isatsa eskas du.

20. Honen bigarren *e*-k ere puntua du gainean, gorago erran gisan.

21. Hemen Elkanoko Lizarragak ibiltzen duen *bitarte* ikusi nahi izan bada ere, garbi dago *-a* dugula. Izan litekeen duda urria ondoko *a* (*lodagigun*) ikusirik desagertzen da.

Olerkia gure irudiz honela irakurri behar da:

*Emen natza ortzirik noizbait gozoeritzi-
rik erioak uste gabe doloroski egotzirik
ene anima Jangoikoagana beldurriki partiturik
lagungabe bide lusean peril asko pasaturik
onak eta orrak bertan muduak idekirik
plazerak azkeno atsekabe biurturik
aideak eta adiskideak artes gutis atzendurik
ikuste(n)tul isuririk arreze gusia deseginik
argi gabe illunbitan hustel eta kirasturik
nigar begi bapedarak bere aldias oroiturik
niorkore isanen estu ni estudan partidurik
ene anima duzuen gomendatu garitates mobiturik
zarraizkidate g- bertan itzok ongi notaturik
Josafate baturen gara judision elkarreki
bitartea lodagigun bakea dela gusieki*

Hau da, izan ere, egileak idatzi zuena, baina ez seguraski burutan eta ahotan zuena, dauden hutsek salatzen duten bezala: *muduak* ‘munduak’, *ni estudan* ‘nik estudan’, *Josafate* ‘Josafaten’, *bitartea* ‘bitartean’. Txistukari nahasketak ere hustzat hartu beharko ditugu: *lusean* ‘luzean’, *gusia* ‘guzia’, *isanen* ‘izanen’, *judision* ‘judizion’, *gusiequi* ‘guzieki. Bi bokal palatalen arteko nahasketak ere hustako jo ditzakegula uste dugu, eta beraz *belduRiqui* ‘beldurreki’ dukegu eta *yllunbitan* ‘illunbetan’. Beste kontu batzuk gorago erran moduan dialektaltzat eman daitezke (*estu* ‘ez du’ eta *estudan* ‘ez dudan’), nahiz hau ere ez dagoen zeharo garbi. Instrumentalaren marka orduko -s genuela bistakoa irudi du, eta hau ezin hartuko dugu idatzokertzat.

Okerrak alde bat utzirik, badira hitz gutxi batzuk ongi samar irakurri arren ikertzaileek agertutako zalantzak ikusirik nola ulertu behar diren oso argi ez daudenak: *anima* (3, 13), *honac eta horrac* (6), *ydequiric* (6), *azqueno* (7), *artes gutis* (8), *ysuriRic / ysuriRiq* (9), *arrece* (9) eta *g-* (14). Azken honetaz ez dugu deus iruzkinduko, gorago erran moduan ez baita egokiro irakurtzen ahal.

Testuan *anima* dugula ez dago dudarik bat ere, Satrustegik ongi dioenez ²², euskalkia aintzako hartuz Mitxelenak ²³ zalantzan jarri eta Irigarayk «argi eta garbi» *arima* irakurri arren. Egia da hegoaldeko goi-nafarreraz idatzitako testu anitzetan -gehienetan seguru aski- *arima* dugula (Beriain, Elizalde, Lizarraga, Ororbia ²⁴...), bakarren batean *arima* hori *anima*-ren ondoan azaltzen bada ere (Muruzabal ²⁵). Bonapartek bildu eta Patxi Ondarrak argitara ateratako materialetan ²⁶, berriz, Garesen *anima* eta Oltzan eta Goñerrian *anime* ibiltzen zutela dakusagu, hain zuzen ere Amenduxen lanean aurkitzen dugun aldaera bera. Hortaz, euskalkiaren aldetik ezintasunik ez dagoela ondorioztatu beharra dago.

22. “La elegía vasca de Juan de Amendux”, *FLV*, 19, 1975 (75-85).

23. *Textos Arcaicos Vascos*, Minotauro, Madril, 1964, 107-110.

24. José María Satrustegi, *Euskal Testu Zaharrak-I (ETZ)*, Euskaltzaindia, Iruñea, 1987, 91-111.

25. *Ib.*, 82-91.

26. “Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi”, *FLV*, 39, 1982, 133-288.

Honac eta horrac Irigarayren arabera *onak eta honrak* irakurri behar genuke, ez Satrustegik 1963ko lanean ulertzen bide duen *honak eta horrak* (“iniciábame el mundo en todas las empresas” itzultzen du bertsoa). Mitxelenak TAV-en Irigarayren interpretazioa ontzat hartzen du (“El mundo me ha privado al punto de bienes y de honores” iraultzen du gaztelaniara), bai eta arruazuarrak berak ere 1975eko berrargitarapenean.

Gure iritzian testuingurua interpretazio honen alde mintzo da, eta ezin uka daiteke *horrac* hori *hon(r)rac*-en ordeztu daitekeela, *muduac munduac*-en tokian dagoen bezal-bezala. Dena den, eta erran dugunez, *ydequiric* (edo *ydequeric*, agian) irakurtzen dugu guk, hasieran *y*-duela, eta honek *edeki* ‘kendu’-rekiko lotura ahultzen du, baina ez ezeztatzen, *ideki* ‘edeki, kendu’ ere ongi dokumentatua baitago. OEH-ren arabera ²⁷ azken forma hau Iparraldeko idazle batzuen lanetan azaltzen da, eta beraz badirudi honek ere, gero iruzkinduko ditugun beste elementu batzuek bezala, Juanes Amenduxen lana Iparraldera hurbiltzen duela. Elkanokoak, berriz, *edeki* ibiltzen du:

“Guc ez erregueric, / emperadoréa / dúgu, ta berceric / naibádu, honoréa / *edequitzendio*, / deitus erreguéa / traició eguitendio” ²⁸.

Bigarren interpretazio bat, testuinguruarentzat horren egokia ez dena, *honak eta horrak* irakurtzea da, zenbait hizkeratan ibiltzen den *hara-hunak* edo *harat-hunatak*-en ildotik ²⁹, eta *idekitzea* ‘irekitzea’ (*idiki* ‘ireki’ ongi dokumentatua dago hegoaldeko goi-nafarreran ³⁰, *iriqui*-z gainera). Honela eginez gero, *honak eta horrak* sujetua litzateke, eta ‘bidaiek’ edo ‘joan-eto-rriek’ adiera leukake, hots, ‘harat-honatek bertan munduak irekirik’. Interpretazio hau ontzat emateko lehenik eta behin Iruñeko euskaran, edo gutxienez Amenduxen hizkeran, ergatibo pluralak *-ak* zuela onetsi behar genuke, eta hau ikusiko dugun bezala ez dago txoil garbi, Mitxelenak Irigarayren irakurketa arbuizatzean dioena kontuan harturik:

“En la traducción que se ha propuesto, se admite un encabalgamiento entre los vv. 7-8: «a los parientes y amigos» (*haydeac eta adisquideac*) «los veo» (*ycustetut*) «olvidados al cabo de pocos años» (*acenduric*). Parece que, de ser «olvidados de parientes y amigos», según vierte Irigaray, tendríamos *haydeec eta adisquideec*, en activo pl. y no los nominativos del texto ³¹”.

Guztiarekin ere, *honak eta horrak*-i erran dugun interpretazioa ematea ongi konponduko litzateke aurreko bertsoarekin, non *bide lusea* aipatzen baita. Ongi konponduko litzateke, orobat, *haydeac eta adisquideac*-i sujetu balioa ematearekin, alegia, ahaideek eta adiskideek ahaztu dutela olerkaria eta ez alderantziz, pentsatzearekin.

Iruñeko euskaran ergatibo pluralak *-ek* izan duela kontu egitea da gisa-koena, euskalki honetan izkiriatu duten nafar idazleek forma hori ibiltzen dutenez gero. Beriainek bere *Tratado*-n *-ek* ohi du, behin *-ak* badarabil ere,

27. Koldo Mitxelena, *Diccionario General Vasco - Orotariko Euskal Hiztegia* (OEH), Euskaltzaindia, Bilbo, 1987tik aitzina.

28. *Koplak*, Juan Apececheak paratutako argitarapena, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983, 96.

29. Ikus, adibidez, OEH-ko «hara» sarrera, 291. orrialdean.

30. Goñerrian, erraterako. Ikus “Materiales...”, 158.

31. TAV, 109.

ohartu gabez agian ³². Elizalde ere mende bat beranduago *-ek* du eta berdin Elkanokoak, gutarik hurbilago. Hegoaldeko goi-nafarreraz idatzitako beste testu anitzetan ere *-ek* ohi dugu, baina Bonapartek bildu eta Patxi Ondarrak argitara emandako materialetan Elkanon eta Garesen ergatibo pluralaren ondarkia *-ek* bada ere Oltzan eta Goñin *-ak* genuela dakusagu ³³.

Nolanahi ere, beste interpretazio egokiago bat ere eman dakioke aztergai dugun bertsoari: honetan *honac eta horrac* ‘joan-etorriak’ osagarri zuzena litzateke, eta *munduak* sujetua, Mitxelenaren interpretazioan bezala, baina osagarri horretan *onak eta honrak* ikusi beharrez *honak eta horrak* ‘harat-hunatak, osterak, bidaia’ ikusiko genuke. Hots, munduak bertan hemendik hara eta handik hona edo, Elkanokoak dioen bezala, joan-etorriketan ibiltzeko posibilitatea kendu dio olerkariari. Honek izan dezakeen oztoporik handiena zera da, hegoaldeko goi-nafarreran, asko eta askotan, *honara, horra* eta *harara* opatzen ditugula ³⁴, ez *hona, horra, hara*; Bonapartek, adibidez, *onara, orra* eta *arara* ematen ditu Elkano eta Gareserako; Oltzan eta Goñerrian, aldiz, *onera, orra* eta *arera* genituen printzearen arabera ³⁵.

Bertan-ek *OEH*-n ematen zaion bigarren adiera duke hemen, alegia, erdarazko ‘inmediatamente, súbitamente’ edo antzerako zerbait dateke ³⁶.

Azqueno testuan garbia da, gainekeo puntua alde bat uzten badugu bederen, eta ez dugu uste Irigarayren *azqueris* edo *azquenic*-endako tokirik dagoenik. Erranahia Mitxelenak dioenez argia da (‘azkenean’, ‘azkenik’) baina forma, idatzokerra ez bada, ez da gardena. Hasiera batean, Satrustegik

32. *Tratado de como se ha de oyr missa*, Iruñea, 1621; gu Hordagok 1980an egin zuen faksimilaz baliatu gara. Kasu berezi samarra da; honela dio: “Eusebioc contacendu, ece Erromaco gendeac, ofrecencituztenean veren sacrificio falsoac etzutela ençuten pregonariaren oyua, baycic erratenciota (...).”

33. Ibero (hau ere Oltza zendeakoa) herriko bidegurutzeak (Jesús Arraiza Frauca, “Ibero. Viacrucis en bascuence de comienzos del siglo XIX”, *FLV*, 51, 1988, 143-154) ez digu deus argitzen. Lagungarri izan genezakeen kasu bakarra zoritxarrez plural hurbilean dago: “Estribilloa *guci / oc* errespondeu biar dutena”. Bestela ere dagoen bokal armonia indartsuak oztopo bat baino gehiago jarriko liguke, Manuel Lekuonak argitara emandako Muzkiko testuetan agitzen den bezala (ikus gure “Elizalderen *Apezendaco doctrina christiana uscaras*”, *FLV*, 65, 1994, 7-39). Cf. hurrengo absolutiboa: “...efecto arrequi obra dezazquezun ene baitan ondasun aubec *guciec* (...)” (152. or.).

34. Ikus, lehen mailako erakuslea dela-eta, Ana María Echaideren *El euskera en Navarra: Encuestas Lingüísticas* (1965-1967), Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989, 251. galdera. *Arara* gerok bildu genuen, Olaguen eta Odietako Latasan erraterako. Ikus “-Ki aditz-atzizkiaren gainean”, *FLV*, 69, 1995, 243-295 (281-282).

Elkanokoak *onará, onaráraño, arará, araráraño* ibiltzen ditu; ikus *Koplak*, 58 eta 104 eta *Doctrina Christioarén Cathechima* (DCC), Juan Apececheak prestatutako argitarapena, PV-Euskaltzaindia, Iruñea, 1979, 34, 113, 177, 243, 253, 279. *Oná* ere badarabil, ‘hona hemen’ adieraz: “...dió S. Juan Bautistac mostrátus érias, *oná Jangoicoaren achsúria* (...)”, DCC, 219.

Atzean *-ago* alderatzaila duenean *aratágo* ohi dugu, eta behin bederen *arachágo* ere bai “Aratágo Zaquéo guizon chipibát, baña tratánte ándia, igatendá arbolabaterá (...)” (DCC, 142, 221). Bestela ere, atzean *-ago-rik* ez duenean ere alegia, *-t-ek* bukatutako formak baditu: *onát, arát, UIGPL*, 103, 172, 380.

Bonapartek *nora* ‘nora’ eta *norata* ‘norantz’ bereizten ditu, adieraz, eta bigarren honetan *onata, horrata* eta *arata* ematen ditu Elkano eta Gareserako, eta *oneta, orreta* eta *areta* Oltza eta Goñerriko. “Materiales...”, 171.

Iberoko gurutzebidean *onaraño* dugu, 151, 152.

35. “Materiales...”, 171.

36. Cf. Agirre Asteasuakoaren pasarte hau: “Beguirá, lagundo diozun bere premietan? Gurasoac, ez eman dezu en gucia bertatíc umeai, bestela erraz guertatu litégue zuequin, beste guraso bati guertatua”. Eracusaldias, 2. alea, Tolosa, 1850, 66-67. Guk Hordagok 1978, Donostian emandako faksimila ibili dugu. Letra beltza gurea da.

1975ean karrikaratutako fotokopia ikusirik, azken lerroan *bitarteo* genuela pentsatu genuen, eta hau *azqueno*-rekin loturik egon zitekeela, hau da, *bitartean* = *bitarteo* / *azkenean* = *azkeno*. Berdinketa hau ez zen erabatekoa, *azkeno*-ren ordez **azkeneo* behar baitzukeen. Orijinalean ordea *bitartea* irakurtzen da, bukaeran *a* duela, gorago erran dugun bezala, hots, azkeneko *n*-a eskas duen *bitartean* arrunta dugu hemen, besterik ez. *Azqueno* nola azaldu behar den ez dakigu.

Zortzigarren lerroko *artes gutis* ere diferente irakurri dute olerkiaz arduratu diren ikertzaileek. Satrustegik, honetaz mintzo den hiru lanetan, *urte* irakurtzen du: *urte(s) gutis* ‘sin tiempo’ (1963) eta *urtes gutis* ‘al cabo de pocos años’ (1975 eta 1987³⁷). Irigarayk ongi irakurtzen du, *artes gutis* ‘en poco tiempo’ alegia, eta lehen elementuaren bukaerako *-s* hori oker bat izan daitekeela dio, baina esapide jatorra ere bai, eta argumentu honen argigarritzat Etxepareren “*neure beqhatuyez oroz dudan varqhamenduya*” bertsoa dakar. Mitxelenak oraingoa Satrustegiren irakurketa nahiago du, Irigarayrena osotara baztertzen ez badu ere. Lehen elementuaren amaierako *-s* oker bat besterik ez da errenteriarrarendako, eta ondorio moduan *urtes gutis* edo *artes gutis* irakurrita -lehen *-s* hori hustako hartzen bada *urte gutis* edo *arte gutis* irakurri beharko dugu- itzulpenerako diferentzia handirik ez dagoela dio:

“No hay mayor diferencia en la traducción: «en pocos años» o «en breve espacio»”³⁸.

Beraz, interpretazio diferenteen arabera ahaideek eta adiskideek olerkaria ahaztu dute edo olerkariak ahaideak eta adiskideak ahaztu ditu, *urte* gutxitan edo denbora laburrean, baina beti ere, pentsatzekoa da, olerkaria gartzelan izan den bitartean, ez lehenago edo geroago. Kontua da orain, Jimeno Jurío langile nekaezinari esker, badakigula Juanes Amenduxek zortzi hilabete baka-rrik egin zituela presondegian, alegia, ez zuela urtebetea ere eman itzalpean, eta beraz hemen *urtes gutis* irakurtzeak alderdi honetatik ez duela inolako zentzurik. Irakurri ere *artes gutis* irakurtzen da argiro, ez *urtes gutis*, erran bezala.

Aipatu behar da, gainera, Juan de Beriainek ere bere *Tratado*-n antzeko sintagma bat erabiltzen duela, bitan gutxienez, bigarrenean guri hainbeste interesatzen zaigun hasierako bokala falta bada ere. Erdarazko testuak, ordea, genituen zalantza urriak desagertarazten ditu. Honela dio Utergako idazleak 99. orrialdean euskaraz:

“Meza ençutenduenac beardu acabadedinean Meza, laungoycoari graciac eman, ezpada **arte gutibates** baycic here eguin dion merchedeas (...)”

Laurogeita hamazazpigarrenean berriz honela dio gaztelaniaz:

“Los que han oydo Missa han de procuran (sic) ser agradecidos; dando gracias al Señor alomenos **por algun breue espacio** por la merced que les ha hecho (...)”³⁹.

37. ETZ, 28-31. Hemen ez du itzulpenik ematen.

38. TAV, 108.

39. Letra beltza gurea da, bai euskarazko bertsioan eta bai erdarazkoan.

Azken orrialdean, aurkibidearen aurretik, berriz ere gauza bera opatzen dugu, edo behintzat hala dela dirudi, orrialdeari zati bat falta baitzaio orijinalen. Zorigaitzoz, guri gehien interesatzen zaigun bokala falta zaio:

“...bates berce bat, eta ala berceac, -e hau eguin badedi bearden bezala -**rte gutibates** baycic ezpadahere da gauza ciertoa aurquenduco dutela prouechua (...)”⁴⁰.

Gaztelaniaz berriz honela dio:

“...otra vez otro (misterio), y assi los demas, que aunque no se haga sino **por vn breue espacio**, haziendose como se deue, es cosa cierta que los hallaran muy mejorados (...)”⁴¹.

Horrela bada, Beriainen lanean **arte guti bates** dugu, hots, ‘(denbora) tarte txiki batez’⁴², eta ez dago dudarik Juanes Amenduxen lanean hau bera dugula, lehen elementuaren azken -s hori nahasgarria suerta badaiteke ere.

Bederatzigarren lerroan bi zalantza-sortarazle ditugu: *ysuriRic* eta *arrece* (e puntuduna dauka). Aurrenekoa guretako garbia da, alegia, argi irakurtzen da, nahiz eta ahaideez eta adiskideez ari dela *isuri* opatzea bitxi askia den⁴³. *Arrece*-n berriz *harresi* ikusi dute Irigarayk eta Mitxelenak, eta *harrek e(re)* Satrustegik⁴⁴. Guk ez dugu batere garbi ikusten; aipatu ez den beste bide bat, hipotesi hustzat dakargu hona, *harretse* ikustea litzateke, hemen olerkian agitzen denaren kontra *s* zena (*arrese* alegia; *s* hemen [č]-ren adierazlea litzateke) *z* bilakatu dela onartzen bada. Grafikoaz gainera azalpen honek badu beste oztopo bat: hegoaldeko goi-nafarreran, dakigunez, *etxe* edo *itxe* azaldu ohi da, ez *etse*, Zaraitzun eta ez bezala.

Testuan badira Iruñerrian mintzatzen zen hegoaldeko goi-nafarreraren ezaugarritzat jo daitezkeen zenbait puntu, instrumentalaren -s bukaera, kasu, eta agian, baina beste maila batean, hortzetako herskariaren aurreko *z > s* pausoa. Hemen, dena den, kontuz ibili beharra dago, alegia, ez da erraza erratea zer den ezaugarri dialektala eta zer den egilearen ezjakintasunak edo idazteko ohitura handirik ez izateak eragindako hutsa, zeren erran bezala, erdarazko testuan ere ugariak baitira *z / s* nahasketak.

Beste aldetik, badira olerkian guk Nafarroako testu zaharretan aurkitzen ez dugun gauza bat, geroaldia egiteko genitiboaren erabilera hain zuzen ere, aditza bokalez bukatzen denean (*baturen gara*)⁴⁵, zeren bestelakoak (*izanen, eginen, eramamen...*; cf. Amenduxen beraren *isanen estu*) oso ugariak izan baitira eta baitira -orain *izain, eramain...* bilakatuak maiz- aipatu euskalkian.

Peril ere ez dugu uste oso arrunta denik, baina sekulan azaltzen ez denik ere ezin erran. Cf. Elkanoko Lizarragaren pasarte hauek:

“Jesús Salvazále, Maria arguieguintzálé; dituénac bére álde, eztú **pellíc** galdaíen”⁴⁶.

40. *Tratado*, 127. or.; letra beltza gurea da. Gidoiekin hutsartea dagoela adierazi nahi dugu.

41. *Ib.*, 121.

42. Cf. Elizalderen *guticobat*, *guticoat* ‘pixka bat’, *Apezendaco Dotrina Christiana Uscaras*, Iruñea, 1735, 84 eta 94.

43. Bonapartek *ixuri* biltzen du Elkano, Gares, Oltza eta Goñerrian. “Materiales...”, 159.

44. “Roto por los gusanos” itzultzen du 1963an, “deshecho también todo por los gusanos” 1975ean.

45. Behin bakarrik aurkitu dugu guk, Muzkiko testuetan (*etorrien da*). Ikus gure “Elizalderen *Apezendaco dotrina christiana uscaras*”, 11. Agirre Asteasukoaren lanean ere agertzen da: “Au eztaquia-nac, cer eguingo du, iltzeco *perillac* artzen badu (...)” *Eracusalldiac*, 2, 17.

46. *DCC*, 143.

“...naut errán, gabegaitzen gauza ón cembaiten satisfáccioas, supplitzecò ayen falta: Ezta **pellic** orgátic galdezágun tratugóntan”⁴⁷.

Ohartu, bide batez, *Peril* hitzak *asko* daukala aldamenean, ez hegoaldeko goi-nafarreran arruntagoa den *anitz*.

Iparraldeko euskalkietakotzat jo daitezkeen elementuak erabiltzea (*ideki, baturen gara, peril?, partidua?*) agian -hipotesi moduan diogu- Jimeno Juriok azaleratu duen ahaideen jatorrian bilatu beharko dugu, hots, Juanes Amenduxen jendakien artean *Garro, Jaso, Oregar* eta *Osé*starrak ageri dira, eta gurasoen etxean *Mongelos* izeneko bat ere izan zuten morroi. Honek guztiak iruindar gazteak etxean mendiez haraindiko euskara adituko zuela pentsarazten digu, seguru aski karrikako hegoaldeko goi-nafarrerarekin nahasia.

Azkenaurreko lerroan ageri den *judision*-en tarteko *-d-* hori ere baliteke bide beretik azaldu behar izatea. Guk hegoaldeko goi-nafarreraz idatzi testuetan ez dugu opatu -honek halere ez du erran nahi azaltzen ez denik- baina bai Leizarragaren lanean. Beriainek erraterako *juyzio* darabil⁴⁸, Lizarragak *jui-cio*⁴⁹ baina Beraskoizkoak *iudicio*⁵⁰.

Bestalde, Amenduxek *bapedera* darabil, hau da, sinkoparik nozitu ez duen aldaera, ez konparazione Beriainek ibiltzen duen *bapedra*⁵¹ edo Elizalderen *batbedra*⁵². Darabilen *mobitu* ere ez dator bat Bonapartek Elkano, Gares, Oltza eta Goñerrirako ematen duen *mogitu*-rekin⁵³. Bat datoz, ordea, *aideak, atzendu, baquea, biurtu, egotzi, guti, guzi, oroitu, ortzi* eta *pasatu*, printzeak biltzen dituenekin eta testuetan aurkitzen ditugunekin. *Nior* aldaerak, *anima*-k eta ez bezala, ekialdera begiratzen duela dirudi, Elkano aldera; mendebaldean eta hegoaldean *yor* (Beriain), *ior*, *yor* (Elizalde), *ior* (Goñerrirako testuak)⁵⁴, *igor* (Gares), *iñor* (Oltza), *igor* (Goñerrria)⁵⁵ ditugu.

Aldiz, *Yllunbitan*-en ageri den bustidura, hau da, *i* bokal osoaren ondoren alboko sabaikaria ([l]) azaltzea Amenduxen hizkera mendebaldera hurbiltzen duen ezaugarria da, Oltza eta Goñerrira hain zuzen, hauetan, Elkanon eta Garesen ez bezala -hauetan ere badira salbuespen batzuk, forma busti bat edo beste, alegia- *ill* izaten baitugu: *illebete, iller, illergi, illersagar, illoba* eta *illeba, illunsarre* ‘ilunabar’ antza, *ortzillere, ziller...* Iberoko katixi-man *illuncen* dugu, besteak beste⁵⁶. Ollorako *Erizkizundi Irukoitza*-k *langille* eta *mutille* dakartza⁵⁷, baina *ilunetatik*; Nabatzen (Xulapainen) *illa, egille* eta *mutille* genituen, obra beraren arabera.

47. DCC, 261. *Arrixko* ere badarabil, *Koplak*-eko 132. orrialdean, konparaziorako.

48. *Tratado*, 11. or.

49. Urteko *Igande Guzietarako Prediku Laburrak*, Patxi Ondarrak paratu argitarapena, Euskaltzaindia, Iruñea, 1990.

50. Gabriel Aresti, “Léxico empleado por Leizarraga de Briscous”, *FLV*, 13, 1973, 61-128. Autore honek *peril* (eta *perilos, periloso*) ibiltzen du, Axularrek (*peril, perilos*) eta bestek bezala (ikus Villasanteren *Axular-en Hiztegia*, Jakin, Arantzazu, 1973).

51. Ikus, erraterako, *Tratado*-ko 31. orrialdea.

52. “Eman batbedrari bere derechoa, edo arracioa”, *Apezendaco*, 87-88.

53. “Materiales para un estudio...”, 156.

54. Patxi Ondarra, “Testos en vascuence en el pueblo de Goñi”, *FLV*, 49, 1987, 117-140.

55. “Materiales...”, 170.

56. 150.

57. Ana María Echaidek paratutako argitarapena, Euskaltzaindia, Bilbo, 1984.

Nigar, beste aldetik, ez dator bat Iruñe inguruan aurkitu ohi dugun *negar* aldaerarekin: *negar* dugu Iberoko katiximan, Elizalderen lanean, Bonapartek bildutako materialetan (aztertzen dituen toki guztietan), Goñerrian aurkitutako testuetako batean⁵⁸... Lizarragak eskuarki *negar* ibiltzen du, baina tarte-ka *nigar* (eta *nigarti*) ere opatzen dugu eguestarraren lanetan.

Partida hitzerako Satrustegik proposatzen duen ‘etsaia’ adiera onesten dugu, azaltzen duen bezala ongi dokumentatua baitago. Formaren aldetik, Garaziko *partida*-ri *partidua* dagokio Hegoaldean⁵⁹, pilota kontuetan behintzat. Beharbada hemen berriz ere mendiez beste aldeko hitza dukegu, pixka bat mozorroturik, hegoaldeko itxuraz.

Soziatiboaren markak bukaeran sudurkaririk ez izatea, bestalde, bat dator inguruko hizkera guztietan opatzen dugunarekin, eta hemen harrigarria *-n*-dun aldaerak aurkitzea litzateke.

Bukatzeko gure ustez egokiena den itzulpena emanen dugu, inoiz edo behin egoki iruditzen zaizkigun bi bertsioetako bat besterik aipatzen ez dugula, orain arte inork eman ez duena hain zuzen, olerkia ulertzeko beste bide bat ere badela edo badatekeela nabarmentze alde. Galdera marka ere agertzen da, behin edo beste, ditugun zalantzen seinale. Hona hemen beraz:

“Aquí yazgo enterrado, derribado inesperadamente y con dolor por la muerte, cuando en otro tiempo me complacía en la vida. Mi alma ha partido con temor hacia Dios, pasando muchos peligros, sin compañero en el largo camino. El mundo me ha quitado súbitamente las idas y venidas (?); los placeres se han convertido al final en pesares. Los amigos y parientes se han olvidado de mí en poco tiempo. Los veo dispersos, deshecha toda la casa (??), sin luz, a oscuras envueltos en la podredumbre y el hedor. Llore cada cual al acordarse de su turno: nadie tendrá enemigo que yo no tenga. Encomendad mi alma movidos de caridad; seguidme enseguida anotando bien estas palabras. Nos reuniremos en juicio en el valle de Josafat. Mientras tanto durmamos, que la paz sea con todos”

LABURPENEA

Lan honetan Juanes Amendux XVI. mendeko iruindar olerkariaren bertsoez mintzatu diren ikertzaileen ekarpenak aztertzen dira, puntu-uren batean interpretazio berria proposatuz. Interpretazio berri hauek egiteko autoreak testu orijinala berriz ikusi eta irakurri du, eta olerkia idatzia dagoen hegoaldeko goi-nafarrera izeneko euskalkiaren hizkuntz ezaugarriak hartu ditu kontutan. Euskalki hau garai batean oso erabilia zen Nafarroan, eta Orreagatik Lizarraraino hedatzen zen, Iruñean ere mintzatua zelarik. Kontutan hartu da, baita ere, Jimeno Juríok olerkari iruindarraren biziaz eta lanaz moldatu duen artikulua.

58. Patxi Ondarra, “Goñerrin aurkitutako beste sei testu”, *FLV*, 57, 1991, 131-168 (154).

59. Ez Hegoalde guztian. Mezkitritzen, konparaziorako, *partide* ibiltzen dute.

RESUMEN

En este trabajo se hace un análisis de los estudios realizados por distintos investigadores sobre los versos del poeta pamplonés del siglo XVI Juanes Amendux, proponiendo en alguna ocasión una nueva interpretación. Para ello se ha recurrido al texto original y se han tenido muy en cuenta las características lingüísticas del dialecto denominado alto navarro meridional hablado en Pamplona y una extensa zona de Navarra, desde Orreaga hasta Estella/Lizarra. También se ha tenido en cuenta el artículo preparado por Jimeno Jurío sobre la vida y obra del poeta pamplonés.

RÉSUMÉ

Dans ce travail est faite une analyse des études réalisées par divers chercheurs sur la poésie de l'auteur pamplonais du XVIème siècle, Juan de Amendux, en proposant quelquefois une nouvelle interprétation. Pour cela, on s'est reporté au texte original et on a tenu compte des caractéristiques linguistiques du dialecte dénommé haut navarrais méridional parlé à Pampelune et dans une grande partie de la Navarre, depuis Orreaga jusqu'à Estella/Lizarra. On a également tenu compte de l'article préparé par Jimeno Jurío sur la vie et l'oeuvre du poète pamplonais.

ABSTRACT

This paper analyses the studies by different researchers of the XVIth century Pamplonés poet Juanes Amendux, giving a new interpretation on some occasions. The original text has been reviewed and we have had in mind the linguistic characteristics of the Basque dialect known as High Meridional Navarese, spoken in Pamplona and in a wide zone of Navare: from Orreaga to Estella/Lizarra. Jimeno Jurio's paper on the life and work of the Pamplonés poet has also been taken into account.